ESKORIATZAKO UDALAREN KIROL-INSTALAZIOEN FUNTZIONAMENDURAKO BEHARREZKOAK DIREN ZERBITZU OSAGARRIAK

1. KONTRATUAREN HELBURUA 2

2. ZERBITZUEN PRESTAZIOAREN IRISMENA ETA HEDADURA 2

3. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK 3

3.1 BETEBEHAR OROKORRAK 3

3.2 ENPRESA ESLEIPENDUNAK LAN-ARRISKUEN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK 5

3.4 ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK HIZKUNTZAREN ARLOAN. 6

3.5 ENPRESA ESLEIPENDUNAK SOROSPEN-ZERBITZUAN DITUEN BETEBEHARRAK. 7

3.6 ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK SARRERA ZAINTZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUAN. 10

3.7 ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK UR JARDUERA ETA IKASTAROEN ZERBITZUAN, GIMNASIOKO JARDUERA FISIKOETAN ETA OSASUN-FITNESS ZERBITZUAN. 11

3.8 ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK AHOLKULARITZA TEKNIKOKO ZERBITZUAN, KIROL-ARLOKO KOORDINAZIOAN ETA INSTALAZIOEN KUDEAKETAN 12

3.9 ENPRESA ESLEIPENDUNAK MANTENTZE-ZERBITZUAN DITUEN BETEBEHARRAK 13

3.10 ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK JARDUERA FISIKORAKO ORIENTAZIO-ZERBITZUAN 17

4. ESKORIATZAKO UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK. 18

1. KONTRATUAREN HELBURUA.

Eskoriatzako Udalaren kirol politika herritarren bizi kalitatea hobetzera eta ohitura osasungarriak sustatzera zuzenduta dago.

Agiri honen xedea da Eskoriatzako udalerrian kirol-arloko hainbat zerbitzuren kontratazioa arautuko duten baldintza teknikoak definitzea, *«2. Zerbitzuen prestazioaren irismena eta hedadura»* apartatuan deskribatzen den bezala.

Baldintza-agiri honetaz gain, administrazio-baldintza partikularren agirian ezarritakoa ere kontuan hartu beharko da.

2. ZERBITZUEN PRESTAZIOAREN IRISMENA ETA HEDADURA.

Kontratuaren irismena honetan datza: Manuel Muñoz kiroldegia eta Joseba Iñurrategi frontoia kirol-instalazioak ireki ahal izateko gutxieneko eta beharrezko jarduerak zehaztea, bai eta kirol-jarduera eta aholkularitza teknikoko zerbitzu batzuk ematea ere. Era berean, jarduera fisikoaren orientazio zerbitzua ematea.

Zereginak honela definitzen dira:

- Kirol arloko aholkularitza teknikoa eman eta ikastaroak eta kirol jarduerak koordinatu eta kudeatzea kirol arloko zinegotzi arduradunak emandako ildoen arabera.
- Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekuetan salbamendu eta sorospen lanak egitea.
- Manuel Muñoz kiroldegiko esparru osoan erabilera araudia betetzen dela zaintzea eta kontrolatzea. Igerilekuetan, igerilekuei atxikitako solariumean eta saunetan, instalazio horiek irekita eta funtzionamenduan daudenean emango da zerbitzua. Gainerako instalazioetan, sarrerako kontrol eta zaintza zerbitzua ematen denean eta kontratu honetatik eratorritako kirol zerbitzuak emateko instalazioak erabiltzen direnean.
- Manuel Muñoz kiroldegiko esparru osoan araudi higieniko-sanitarioa betetzen dela eta uraren kalitatea ona dela zaintzea eta kontrolatzea. Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekuaren instalazioaren autokontrolerako programa behar bezala betetzen dela zaintzea, kontrolatzea eta beharrezko neurriak hartzea.
- Udalak eskatutako ur jarduerak eta ikastaroak, gimnasioko jarduera fisikoak eta osasuna-fitness zerbitzuak ematea. Gaur ematen den jarduera-programa agiri tekniko honen I. eranskinean dago jasota. Programa hori Udalak aldatu ahal izango du, eskariaren arabera.
- Instalazioetarako sarrerako kontrol eta zaintza zerbitzua baldintza agiri honetako II. eranskinean ezarritako egun eta orduetan.

Instalazioetarako sarbideak kontrolatzeko eta zaintzeko zerbitzua eta antzeko funtzioak, edukieragatik edo ezaugarriengatik Manuel Muñoz kiroldegian edo Joseba Iñurrategi frontoian egiten diren ekitaldi berezietan, hala nola jolas-jardueretan edo udalak antolatutako edo babestutako beste ekitaldi batzuetan, bai eta ezohiko kirol-jarduera eta -lehiaketetan edo ohiko ordutegitik kanpo egiten direnetan ere. Zerbitzu horiek puntualki emango dira, udalak eskatu ondoren.

- Mantentze-, konponketa- eta kontserbazio-zerbitzu txikiak.

Zerbitzuak Manuel Muñoz kiroldegiko instalazioak II. eranskinean adierazitako ordutegian eta egunetan irekita eta zerbitzuan izateko moduan emango dira. Ez da inolaz ere bermatzen aurreko puntuan aipatutako ordu guztiak emango direnik, eta ezta bermatzen ere aurreikusitako fakturazioa. Aurreikusitakoa baino gehiago edo gutxiago izan daiteke, eta horrek ez du inolako eraginik izango kontratuan.

Zerbitzura atxikitako udal langileen lan eta funtzioekin koordinatuta eman beharko da zerbitzua.

3. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

Kontratuan finkatutako denboran zerbitzuak ematea, baldintza agiri honen arabera eta Administrazioak enpresa kontratistari kontratua interpretatzeko ezarritako jarraibideen arabera. Kontratua ezin izango zaio hirugarren bati laga, ez osorik ez partzialki, Udalaren beraren berariazko baimenik gabe.

Jarraian, kontratistak erantzukizun-eremu bakoitzean dituen betebeharrak zehazten dira. Udalak edozein momentutan eska diezaioke betebehar horiek betetzen dituela egiaztatzea.

3.1 BETEBEHAR OROKORRAK.

- Behin betiko fidantza aipatutako epean gordailutzea, eta hala badagokio, fidantza osagarria ere bai.
- Kontratua agiri honetan ezarritako epean formalizatzea.
- Izan daitezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak 15 eguneko epean jakinaraztea Udalari.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- Zerbitzu hauek eskaintzerakoan Udalari edo hirugarrenei egindako kalte-galerak ordaintzea. Horretarako, erantzukizun zibileko poliza bat sinatu beharko du, gutxienez 600.000 euroko kapitalarekin, zerbitzua ematetik eratorritako edo sortutako kalteak estaltzeko.
- Udalarekiko zuzeneko solaskidea izango den arduradun-koordinatzaile bat izendatzea. Solaskide horrek baldintza agiri honetako 3.4 baldintzan eskatzen den hizkuntz prestakuntza izan beharko du, internet eta ofimatika ezagutza aurreratuak, eta gutxienez 2 urteko esperientzia taldeen kudeaketan.
- Kirol zerbitzuko arduradunak ezarritako koordinazio bileretara joatea. Bilera horietan enpresako arduradun-koordinatzaileaz gain zerbitzua ematen duen beste langileren bat egotea eskatuko balu Udalak, etortzera behartuta egongo da.

- Jarduerak udal kirol zerbitzuak ezarritako egun eta orduetan ematea (baldintza agiri honetako I. eta II. eranskinetan zehazten dira), kontuan izanik ordu horiek gutxi gorabeherakoak direla, eta Udalak horrela eskatuta, aldatu ahal izango direla. Hurrengo urteetako ordutegiak eta egutegiak aurreko urtea amaitu baino lehen jakinaraziko dira.
- Jarduerak antolatzeko udal kirol zerbitzuaren egitasmoko ekintzak aurrera eramatea (abian ipinitako egitasmoak egikaritu, zerrendak irakurri, ziurtagiriak ikasleen artean banatu, mailaz mailako erregistroa eraman eta jardueren egitasmoan zehaztu daitekeen guztia). Ildo horretan, enpresak eta langileek Datu Pertsonalak Babesteko Legea beteko dute.
- Monitoreen bitartez, ikastaroa emateko behar den diziplina mantentzea, ikasleak eta beste erabiltzaile batzuk gogaitu barik, eta bertako arauak bete eta betearaztea.
- Erabili behar den materiala muntatu eta desmuntatzea, atera eta jasotzea, ikastaroak garaiz emateko. Horrekin batera, jarduera egiteko erabilitako kirol esparruak zabaltzeaz eta ixteaz ere arduratuko dira.
- Organigrama funtzional bat aurkeztea, udal-langileen eta enpresaren arteko harremanak ezarri eta jasoko dituena, bai eta enpresaren eta udalaren artekoak ere, eta organigrama hori betetzea. Bertan, enpresako eragileen arteko barne koordinazio eta kontrolaren berri emango da. Horretarako, enpresako langileen lanpostu bakoitzaren definizioak jasoko dira, haien eginkizunen deskribapenarekin eta zerbitzuari atxikitako udal-langileekiko osagarritasunarekin.
- Ebakuazio planean jasotako betebeharretan parte hartzea, Udalak adierazitakoari jarraituz.

Kontratuko zerbitzu guztiei buruzko txosten eta azterlanak prestatu, zerbitzuaren arduradunek horrela agindutakoan. Udalak ahalmena izango du zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuskatzeko eta esleipendunak bete beharrekoak betetzen dituen egiaztatzeko Autokontrol-planeko jarraibideek ematen duten maiztasunarekin eta etengabeko arretan, oinarrizko parametro hauek neurtzeaz, baloratzeaz, zaintzeaz eta erregulatzeaz arduratuko da: tenperatura, pH-a, kloroa, uraren tenperatura, giroko hezetasun erlatiboa, uhertasuna eta ur-maila. Era berean, igerilekuko ontziko ura berritzeaz arduratuko da, aipatutako planean adierazitako maiztasunarekin, bai eta iragazkiak garbitzeaz eta purgatzeaz ere, besteak beste. Gainera, parametroak maila optimoetan mantentzea ahalbidetzen duten neurri zuzentzaileak zein diren jakin beharko du. Instalazioen jarraipena eta kontrola egitea, disfuntzioak prebenitzeko. Arazo teknikorik antzemanez gero, berehala jakinarazi instalazioetako mantentze-lanen arduradunei. Horren barruan sartzen da ur beltzen ponpen aurreko saretak aldizka berrikustea.

- Era berean, mantentze-lan arauzko, prebentziozko eta zuzentzaileez arduratuko da, Udalarekin adosten den neurrian.
- Instalazioak behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren biltegiko produktuen egoera berrikustea, bai eta erabiltzen diren produktu horien mailak ere (produktu kimikoak, algen aurkakoak, lehen sorospenetarako materiala, garbiketa-produktuak eta

bestelakoak), eta udal-arduradunei behar besteko aurrerapenaz abisatzea, produktuak pilatzen joateko.

3.2 ENPRESA ESLEIPENDUNAK LAN-ARRISKUEN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK.

Adjudikazioduna behartuta dago lanaren, gizarte-segurantzaren, minusbaliatuen gizarteratzearen eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia betetzera, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean, enpresa-jardueren koordinazioaren arloan lege horren 24. artikulua garatzen duen urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan eta indarrean dagoen gainerako araudian xedatutakoaren arabera.

Manuel Muñoz kiroldegiko Autobabes Plana betetzeko, ezartzeko eta berrikusteko erantzukizuna izango du, besteak beste.

Gainera, enpresa esleipendunak honako dokumentazio hau aurkeztuko du HIRU HILABETEKO gehieneko epean, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita:

- ESKORIATZAKO UDALERAKO lan egingo duten langileen zerrenda, NANa, izen-abizenak eta lanbide-kalifikazioa adierazita, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen arabera. Zerrenda horretan, gainera, kontratatutako enpresako prebentzio-arduradun bat izendatuko da (prebentzio-baliabidea eta prebentzio-arloan prestatzea, 54/03 Legearen arabera).
- Langileen jaso-agiria, norbera babesteko ekipamendu egokiak jaso dituztela eta nola erabili dituzten adierazten duena.
- Kanpoko Prebentzio Zerbitzuarekin indarrean dagoen kontratua edo prebentzio-zerbitzu propioa eratu dela egiaztatzen duten dokumentuak, bai eta Lan Agintaritzaren indarreko egiaztagiriaren kopia ere.
- Kanpoko Prebentzio Zerbitzuak emandako ziurtagiria, ESKORIATZAKO UDALEAN jardungo duten lanpostuen Arriskuen Ebaluazioa eta nahitaezko Prebentzio Plana egin direla adierazten duena.
- Osasunaren zaintzaren bidez egindako langileen gaitasun-egoeraren kopia.
- Zerbitzuan erabili beharreko makinen eta ekipoen zerrenda, adostasun-adierazpena erantsita.
- Arrisku espezifikoei eta neurriei buruzko prebentzioaren arloko prestakuntza-ziurtagiriak.
- Lanean eta zerbitzuan hartu beharreko prebentzio-neurriak, bai eta ESKORIATZAKO UDALEAN jardungo duten langileek jasotako arriskuei buruzko informazioaren kopia ere.
- Erantzukizun zibileko poliza eta ordainketa-egoera.
- LAParen arloan eskatzen den dokumentazio guztia.

- Arestian zerrendatutako dokumentazioa eguneratu egin beharko da hura aldatzen bada, edo, hala badagokio, kontratu-harreman berri bat hasten bada, kontratazio-organoak baimena eman ondoren. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/95 Legearen 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresaburuek laneko arriskuen prebentzioaren arloan dituzten betebeharrak ez betetzeak administrazio-erantzukizunak ekarriko ditu, bai eta, hala badagokio, erantzukizun penalak eta zibilak ere, ez-betetze horretatik erator daitezkeen kalte-galerengatik. Era berean, kontratistak laneko arriskuen prebentzioari buruzko baldintza honetan aurreikusitako xedapenak betetzen ez baditu, kontratua suntsiarazi egingo da.

3.3 ENPRESA ESLEIPENDUNAK GENERO-BERDINTASUNAREN ARLOAN DITUEN BETEBEHARRAK.

Kontratistak genero-berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, baita EMAKUNDEk egindako gomendioak ere.

3.4 ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK HIZKUNTZAREN ARLOAN.

- <u>Zerbitzua emango duten langileen euskara-gaitasuna:</u>

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik,

  - Kirol arloko aholkularitza teknikoaz eta kirol ikastaro eta jardueren koordinazio eta kudeaketaz arduratuko den arduradun/koordinatzaileak Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko euskara maila egiaztatu beharko du.
  - Sorosleek, kirol monitoreek, harreragileek eta erabiltzaileekin harreman zuzena izango duten gainontzeko langile guztiek, Europako Erreferentzia Markoaren B2 gaitasunaren pareko idatzizko euskara-maila egiaztatu beharko dute eta C1 gaitasunaren pareko ahozko maila.

Kontratua esleitu aurretik enpresak egiaztatu beharko du zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Hori egiaztatzeko, honako bi bideak erabili ahal izango dira:

  - Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
  - Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Era berean, kontratua hasi eta gero zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Subrogazio kasuetan, langileek betetzen ez badute eskatutako hizkuntza-gaitasuna, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko beharrezko neurriak adostuko dira, herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

- Hizkuntza ofizialen erabilera kirol jarduera taldeetan:

16 urtetik beherako haur eta gazteei zuzendutako jarduerak euskaraz izango dira.

Helduentzako jardueretan, egon daitezkeen hizkuntza-egoerak egoki kudeatu ahal izateko, hiru hizkuntza-tipologiaren arabera funtzionatuko da:

- Ikastaroko partaide guztiek euskara ulertzen dutenean, jarduera hori euskara hutsean egingo da.
- Ikastaroko partaideen erdiek baino gehiagok euskara ulertzen dutenean, jarduera hori nagusiki euskaraz egingo da. Beharrezkoa balitz, monitoreak laburpenak egingo ditu erdaraz edo banakako azalpenak eman horren beharra dutenei.
- Ikastaroko partaideen erdiak baino gutxiagok ulertzen dutenean euskara, jarduera hori nagusiki erdaraz egingo da, eta monitoreak euskaraz esango ditu agurrak, zenbakiak, animo hitzak eta antzekoak. Gainera, euskaraz egingo die euskara ulertzen dutenei.

Irizpide horiek erabili ahal izateko, ikastaroetarako izena emateko orrietan bakoitzaren euskara mailari buruzko galdera egingo da.

- Hizkuntz erabilera herritarrekin eta zerbitzu hartzaileekin:

Herritar eta zerbitzu erabiltzaileei harrera egin eta erantzuteko, udalak bete behar dituen hizkuntza baldintza berak bete beharko dira. Eta, horregatik,

- Lehen hitza euskaraz egingo zaie, eta hortik aurrera, beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean hitz egingo zaie.
- Jarduera taldeetan, aurreko atalean zehaztutakoaren arabera jokatuko da.
- Idatzizko erabilerari dagokionez, irizpide orokor moduan, herritar eta erabiltzaileei zuzendutako komunikazioetan (oharrak, inprimakiak, ordutegiak, ordainagiriak, errotuluak...), euskarari emango zaio lehentasuna. Horretarako, mezua hitz gutxitakoa denean eta bi hizkuntzetan grafia oso antzerakoa duenean, euskaraz idatziko da, eta ahal denean, piktogramak jarriko dira ondoan euskarazko mezuari laguntzeko. Piktogramak erabilita ere mezua behar bezain argia ez denean, edo idatzia luzea denean, ele bitan egingo da euskarari lehentasuna emanez.

- Hizkuntza ofizialen erabilera Udalarekin:

Udalaren eta esleipendunaren arteko ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak euskaraz izango dira, izan harreman administratiboak (kontratu, faktura, ...), izan zerbitzua ematetik sortutakoak (txosten, bilera, memoria …).

3.5 ENPRESA ESLEIPENDUNAK SOROSPEN-ZERBITZUAN DITUEN BETEBEHARRAK.

Zerbitzuari esleitutako sorosle-kopurua indarrean dagoen legeriak ezarritako gutxienekoa izango da une oro, eta bat etorriko da zaintza-zerbitzuan, ikastaroetan edo bestelakoetan egiten ari diren jarduerekin.

- Barruko eta kanpoko igerilekuen instalazioak 2. eranskinean esandako ordutegian eta egutegian irekita eta zerbitzuan izateko moduan eman beharko da. Hori guztiori aipatutako ordutegia eta egutegia kontratuaren indarraldian Udalak aldatu ahal izatearen kaltetan gabe.
- Sorosle funtzioak eta Eusko Jaurlaritzako otsailaren 18ko 32/2003 Dekretua garatzen duen erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitariotik eratorritako arau guztiak betetzea eta betearaztea. Osagarri bezala, kiroldegiko autokontrol plana ere bete beharko dute.
- Igerilekuan eta horri lotutako guneetan beharrezko prebentzio neurriak hartzea eta bertan egon daitezkeen erabiltzaileak zaintzea.
- Larrialdi-egoeretarako beharrezkoak diren osasun-baliabideak erabiltzen jakitea eta prest eta egunean mantentzea: une oro instalazioan eskuragarri dauden baliabideak prest izatea. Gainera, sorospen lanak prestatu beharko ditu eta eguneratuta izan.
- Gune horretarako ezarritako arauak ezagutzea, horiek betetzea, erabiltzaileei jakinaraztea, irakastea eta betearaztea.
- Autobabes-plana ezagutzea.
- Jarduera hauek egitea:
    - Igerileku handiko edo txikiko osasun parametroak arriskuan jarriko lituzkeen gorabeheraren bat izanez gero (oka, kaka eta abar) sorosleak indarrean dagoen protokoloa jarriko du martxan.
    - Kokapenari dagokionez, agerian egon beharko du beti, eta ikusgai egon, beti, barrutia eta erabiltzaile guztiak kontrolatzeko moduan. Bera izango da igerilekua dagoen esparruan sartuko den lehena eta irtengo den azkena. Irten aurretik esparrua ikuskatuko du eta bertan erabiltzailerik ez dagoela ziurtatuko du. Era berean, bere lanorduetan ezingo du igerilekua dagoen esparrutik alde egin.
    - Debekatuta dago telefonoa helburu partikularretarako erabiltzea, zein tableta elektronikoak, ordenagailu pertsonalak eta abar erabiltzea. Debekatua dago ere prentsa eta aldizkariak irakurtzea, gurutzegramak egitea edo soroslearen arreta galarazten duen beste edozein jarduera egitea.
    - Igerilekuen erabilera-araudia bete eta betearazten saiatuko da, osasun-autokontroleko plana barne.
    - Txapelketetan, kirol-probetan, haur-jolasetan, jaialdietan... indarrean dagoen araudia eta kiroldegiko erregelamendua betearaziko ditu.
    - Salbamendu- eta sorospen-zerbitzuan agintari gorena denez, zerbitzua bertan behera utzi eta erabiltzaileak zerbitzutik kanporatzeko ahalmena izango du.

- Pertsonaren bat artatu behar duenean, botikinera joan edo antzeko beste zerbait egin, eta esparruan lankideren bat baldin badago, laguntza eskatuko dio esparrua zaintzen geratzeko.
- Lanpostuan txanda hartu behar izanez gero, ezingo du lanlekutik alde egin lankidea etorri eta bere eginbeharrak egiteko prest egon arte eta egon daitezkeen berriak jakinarazi arte.
- Une jakin batzuetan teknikariei lagunduko die: ikasleen joan-etorriak, materiala, etab.
- Igerilekuaren autokontrol planean jasotakoaren arabera, adierazgarria izan daitekeen edozein gorabehera jaso eta jakinaraziko du. Horretarako, langileek autokontrol-plan hori behar bezala ezagutu eta kudeatu behar dute.
- Esparruan dauden argi beharren berri eman beharko dio mantentze-lan zerbitzuari, eta behartuta dago energiaren kontsumo iraunkorra zaintzera, eta beharrezkoa balitz, argiak, berogailua eta abar itzaltzeko eska dezake. Erabiltzaileen ur kontsumoak ere zainduko ditu, eta dutxetan zein iturrietan kontsumo horiek egokiak izan daitezen zainduko du.
- Zerbitzuan eragina izan dezakeen edozein gorabehera, iradokizun edo hobekuntzaren berri eman beharko die bere arduradunei.
- Bere eginkizunak betetzeko arropa egokia eta identifikagarria eduki beharko du (bainujantzia, kamiseta eta oinetakoak). Ezingo da kaleko arroparekin sartu igerilekua dagoen esparrura eta bertan aldatu.
- Instalazioak zuzen erabili daitezen eta prebentzio lan gisa, sorosleak instalazioen erabilera, igerilekua erabiltzeko arauak eta helburu horietarako interesgarri izan daitezkeen gauza guztiei buruzko informazioa, kiroldegiko erregelamendua barne, ezagutu beharko du eta erabiltzaileei jakinarazi. Enpresa esleipendunak igerilekuko kaleen okupazioari buruzko seinaleztapena eguneratuta izateko beharra hartzen du bere gain. Horretarako, horren berri emateko kartelak jarri eta aldatuko ditu eta igerilekuko esparruan jarri daitezkeen okupazio panelak beteko ditu. Era berean, igerilekuko erabileraren kontrolari eta okupazioari buruzko kartel informatiboak eta gainerako seinaleak jarriko ditu, eta eguneratuta eduki. Horretarako, zerbitzuak zuzen funtzionatzeko beharrezko kartelak egiteko eskatuko dio kirol instalazioen arduradunari.

- Kontrol alorra.
  - Igerileku bakoitzean eta horietako egonlekuetan zenbat pertsona dauden kontrolatuko du, ezarritako gehieneko pertsona kopurua gainditu ez dadin. Edukiera horiek edukiera kontrolatzeko fitxetan jasoko dira autokontrol planean ezarritako maiztasunarekin.
  - Igerilekuetan zein alboko esparruetan izandako edozein gorabeheren berri emango du.

- Bere zerbitzurako materiala zainduko du eta erabiltzaileek material hori nola erabiltzen duten kontrolatuko du.
- Monitoreek, kirol teknikariek eta erabiltzaileek materiala leku eta modu egokian lagatzen dutela eta zuzen erabiltzen dutela kontrolatuko du.
- Erabiltzaile bakoitzak bere materiala (eskuzorroak, hegatsak, arnasa hartzeko tutuak) sartzeko baimena egoera puntualetan emango da eta soroslearen irizpidearen arabera, bera baita beti igerilekuaren erabilpen ona zaindu behar duena.
- Ezin izango da inor sartu kaleko arroparekin, oinetakoekin, poltsekin eta abarrekin. Instalaziora sartzen diren taldeek taldearen arduradun heldu batekin egon beharko dute igerilekuan, eta esleitutako espazioa erabili beharko dute ezarritako ordutegian.
- Kaleen erabilera arautuko du, igerilekuen araudiaren, saioak egiteko monitoreen beharren eta espazioa behar bezala erabiltzeko eta aprobetxatzeko berezko irizpidearen arabera.
- Botikineko materiala zaindu eta eguneratuko du, Udalari behar besteko aurrerapenaz eskatu ondoren, iraungitako produkturik egon ez dadin eta ezinbestekoa den ezer falta ez dadin.

- Zaintza-arloa.
  - Arreta berezia jarriko die arrisku handieneko ikastaroei, hastapenei, haurrei, premia bereziak dituzten helduei, 3. adinekoei, etab.
  - Arreta berezia jarriko du oinutsik ez ibiltzeko edo pertsonen osotasuna arriskuan jar dezaketen lasterketak ez egiteko ez ur barruan ez hondartzetan.
  - Orokorrean, beste erabiltzaileen edo soroslearen beraren segurtasuna arriskuan jar dezaketen eta materialean kalteak eragin dezaketen jarduerarik (erorketa desegokiko jauziak, taldeka egindako jauziak, behin eta berriz jauzi egitea, bultzadak eta abar) egin ez dadin zainduko du.
- Osasun arreta.
  - Barruko eta kanpoko igerilekuan, saunen eremuan eta kiroldegian gertatzen diren gorabehera guztiei erantzungo die, eta izandako gorabeheren, istripuen eta salbamenduaren parteak erregistratuko ditu.
  - Gertakarietan, istripuetan, hutsegiteetan eta abarretan jarduteko protokoloa gauzatu eta bere gain hartuko du, eta gertakaria idatziko du, ordua, pertsonaren datuak eta gertakarien kontakizuna barne.
  - Enpresa esleipendunak sorosle berriren bat kontratatu behar badu, aldaketa idatziz aurkeztu eta iragarri beharko die kirol-instalazioetako arduradunei, lanean hasi aurretik, eta haren prestakuntzaz arduratuko da.

- Salbamendu- eta sorospen-zerbitzua Manuel Muñoz kiroldegiko instalazioak jendearentzat irekitzen diren egun guztietan emango da, irekitzen direnetik ixten diren arte, eta Udalak berak eskatuta aldatu ahal izango da.

3.6 ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK SARRERA ZAINTZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUAN.

KIROLDEGIAN, honako hauek eman beharko dira zerbitzuan:

- Instalazioak irekitzea eta ixtea
- Erabiltzaileen sarrera kontrolatzea.
- Erabiltzaileei harrera egitea eta instalazioei buruzko informazioa ematea.
- Kirol-instalazioak kudeatzeko programa informatikoaren oinarrizko ezagutza. Aplikazio horrek honako modulu hauek ditu, besteak beste:
  - abonatuak (altak eta bajak).
  - kirol-eskolak (altak eta bajak ikastaroetan).
  - zerbitzuak (kirol-guneen erreserbak kudeatzea).
  - leihatila (sarrerak eta bonuak saltzea).
  - sarbideen kontrola, une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Kiroldegia eta bertako instalazioak zaintzea.
- Erabiltzaileei, abonatuta egon edo ez, instalazioak erabiltzeagatik ezarritako prezioak kobratzea, kirol-jarduerengatik edo eskuragarri dituzten zerbitzuak libreki erabiltzeagatik, bai eta kirol-arloko aparteko beste jarduera batzuetatik edo halakorik gabe eratorritako kobrantzak kobratzea ere.
- Udalak agintzen dituen antzeko beste lan batzuk.
- Funtzionamendu arauak ezagutzea eta betearaztea.

Bestalde, FRONTOIAN, zerbitzuak honako hauek hartzen ditu barne:

- Sarbidea kontrolatzeko sistemaren kudeaketa eta jarraipena: funtzionamendu zuzena, baimenen kudeaketa eta erabilera-kontrola.
- Kiroldegia itxi ondoren, pilotalekuaren erabilera-egoera egiaztatu eta gorabeherak zuzendu eta/edo idatziz jaso. Era berean, antzematen diren kalteak edo disfuntzioak jakinaraztea.

3.7 ENPRESA ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK UR JARDUERA ETA IKASTAROEN ZERBITZUAN, GIMNASIOKO JARDUERA FISIKOETAN ETA OSASUN-FITNESS ZERBITZUAN.

- Zerbitzua edo saioak udal kirol zerbitzuak ezarritako ordu eta egunetan ematea. I. eranskinean ageri dira kontratuaren indarraldiko lehenengo urteko ikastaroak eta gutxi gorabeherako ordutegia, Udalak aldatu ahal izango duena benetan egon daitekeen eskaeraren arabera.
- Ikastaroak edo osasuna-fitness zerbitzua antolatzeko, udaleko kirol-zerbitzuarekin batera ekintzak egiteko (martxan dauden planak gauzatzea, zerrenda pasatzea, ikasleei ziurtagiriak banatzea, udalak ezarritako kirol-erregistro, -helburu eta -edukiak eramatea, etab.) Udaleko Kirol Zerbitzua arduratuko da jarduera horiek guztiak kudeatzeaz; gainera, taldeak sortzeko ratioak onartuko ditu, betiere jardueraren ezaugarrien arabera, eta osoko bilkurari proposatuko dizkio kirol-jarduera bakoitzeko kobratu beharreko tarifak. Parametro horiek ez dira parametro finkoak, eta Udalak berak aldatu ahal izango ditu.

Osasuna-fitness zerbitzuak honako atalak eta betebeharrak izango ditu:

- Horrela eskatzen duten abonatu guztiei osasun arloko aholkuak ematea, eta oinarrizko entrenamendua prestatzea fitness aretoko erabiltzaileei. Ez dira entrenamendu pertsonalizatuak prestatuko.
- Fitness-aparatuak erabiltzen irakastea.
- Instalazioak kontu handiz erabiltzen direla zaintzea.
- Makinetan prebentziozko mantentze-lanak egitea mantentze-lanen atalaren erantzukizuna izango da; hala ere, makinetako batean akatsen bat edo matxuraren bat badago, instalazioen mantentze-lanen arduradunari jakinarazi beharko zaio.
- Erabiltzaileei laguntza tekniko zehatza ematea, berdintasunezko tratu-portaerarekin, eta pertsonei edo gauzei edozein kalte saihesteko behar diren segurtasun-neurriak hartuta.
- Instalazioetan, erabiltzaileak behar bezala jokatzera eta bizikidetza- eta higiene-arauak betetzera behartzea.
- Arauzko txostenak edo komunikazioak egitea.
- Zerbitzuaren barruan egin beharreko gainerako lanak.

3.8 ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK AHOLKULARITZA TEKNIKOKO ZERBITZUAN, KIROL-ARLOKO KOORDINAZIOAN ETA INSTALAZIOEN KUDEAKETAN.

AKPAren ezaugarrien taulan ezarritako urteko orduak gutxienez bermatzeko moduan emango da. Honako atalak eta betebeharrak izango ditu:

- Eskoriatzan egin beharreko kirol jarduera eta programak diseinatu, planifikatu eta horien exekuzioan zuzenean lagundu arloko arduradunak emandako jarraibideen arabera.
- Programatutako jardueren jarraipena egin eta ebaluatu.

- Kirol jardueren antolaketan herritarren parte hartzea sustatu, bultzatu eta lagundu.
- Udal teknikariekin zein beste udal batzuetakoekin edo beste administrazio batzuekin koordinazio bilerak egin proiektuak edo jarduerak elkarrekin egiteko.
- Jarduerak egiteko aholkularitza eta laguntza teknikoa eman talde eta elkarteei.
- Udalari aholkularitza eta laguntza teknikoa eman txostenak, dirulaguntzetarako tramiteak, oinarriak, baldintza agiriak edo kirolarekin lotutako beste edozein dokumentu egiteko.
- Instalazioen funtzionamendu egokia lortzeko beharrezkoak diren zereginak bultzatzea, arreta berezia jarriz ahalik eta kirol-okupazio handiena lortzeko beharrezko ekintzetan.
- Aholkularitza ematea kiroldegiko erregelamendua berraztertzeko, jarraipena egiteko eta eguneratzeko.
- Igerilekuaren autokontrol-planaz arduratzea, behar diren eguneratzeak egitea une oro Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren indarrean dagoen araudiaren arabera, eta balio errealak behar adinako maiztasunarekin kontrolatzea eta neurri zuzentzaile egokiak hartzea.
- Oro har, udaleko kirol-instalazioak osorik gainbegiratzeaz arduratuko da, arloko udal-arduradunarekin koordinatuta, behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko. Zehazki, jarraipen- eta gainbegiratze-plan bat egin eta eguneratuta edukiko du, egokitzat jotzen diren mantentze-, konponketa- eta hobekuntza-lanak planifikatu ahal izateko, Udalak beharrezko zuzenketa- eta prebentzio-lanak egin ahal izan ditzan.

3.9 ENPRESA ESLEIPENDUNAK MANTENTZE-ZERBITZUAN DITUEN BETEBEHARRAK.

Instalazioen kontserbazioak edo mantentzeak barne hartuko ditu elementu higigarriak zein higiezinak konpontzeko lanak; beraz, enpresa kontratisten eskumenekoak izango dira honako alderdi hauek:

- Erabiltzaileek kiroldegian egiten dituzten elementu guztien ohiko mantentze-lanak.
- Instalazioak indarrean dauden araudira egokitzeko egin beharreko lanak eta obra txikiak.
- Garrantzi txikiko obrak, instalazioak hobetzeko eta Udalaren ustez egin beharrekoak direnak.
- Prebentzio-lanak nahiz erabiltzaileek apurtutako materialen konponketa, hau da, hasierako erabilera-egoerara itzuliko dira, Udalak materialak hornituz.
- Udalak enpresaren eskura jarriko ditu materialak, Udalak izendatutako kontratuaren arduradunari idatziz eskatu ondoren, salbu eta apurketa oso larria bada; kasu horretan, egoera aztertuta, enpresak kaltea konpontzeko ezinbestekoak diren materialak erosi ahal izango ditu.
- Eskoriatzako Udalak ordainduko ditu energia (elektrizitatea, gasa, ura, etab.) eta gainerako kontsumoak (telefonoa, etab.), udal-igerilekuetako ura barne.

Baldintza administratiboen pleguan aurreikusitakoaz gain, lizitatzaileek gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lizitazio honen xede diren eraikin guztiak bisitatu eta berrikusi izana, bai eta instalazioak ere, eta baldintza-agiri honetan eta eranskinetan emandako datuekiko egon daitezkeen desberdintasunaz abantailik atera ez izatea, kontratuaren aldian prezioa aldatzen saiatzeko.
- Instalazioak bisitatzeko, zentroko zuzendaritzarekin harremanetan jarriko dira, eta eraikin bakoitzean bisita egin izanaren ziurtagiria zigilatuko da.
- Esleipen unean, enpresak zerbitzu egokia garatzeko eta, hala eskatuz gero, arreta bermatzeko behar adina langile izango ditu Gipuzkoan. Halakorik ezean, adjudikaziodunak kontratua indarrean jarri eta 6 hilabeteko epean lurralde horretan ordezkaritza bat eratzeko berariazko konpromisoa. Betekizun hori kontratua adjudikatu ondoren egikaritzeko baldintza izango da.
- Esleipendun suertatuz gero, eraikinetan esku hartuko duen taldearen titulazioa erantsi beharko du.

BALDINTZA TEKNIKOAK.

- **ARAUDIA BETETZEA.**

Lizitazio honen helburu diren lanetatik eratorritako prestazio guztiak garatzean, nahitaez bete beharko da egungo lege-araudi tekniko, tekniko eta legal guztia, segurtasunari eta higieneari buruzkoa, bai eta eraikinen ezaugarriengatik aplika daitekeen araudi guztia ere.

BERMATU BEHARREKO BALDINTZAK.

- **Ur bero sanitarioaren ekoizpena.**

Urte osoan zehar dauden aldagela guztietarako nahikoa ur bero sanitario sortuko dela ziurtatuko da.

- **Argiztapena.**

Adjudikaziodunak bermatuko du zerbitzuaren argiztapen-maila nahikoa dela zentroan egin daitezkeen jarduera guztiak garatzeko, eta arreta berezia jarriko dio kirol-praktikak baldintza onenetan egiteko behar den argiztapenari.

- **Igerilekuak.**

Esleipendunak une oro bermatu beharko ditu igerilekuetako urak araudiaren arabera behar dituen osasungarritasun-baldintzak, instalazio horiek erabiltzeko garaia eta aldiak kontuan hartuta. Horretarako, nahitaez bete beharko da erabilera kolektiboko igerilekuen osasun-erregelamendua onartzen duen otsailaren 18ko 32/2003 Dekretuan arautzen den lege-araudia, bai eta legionelosia prebenitzeko eta kontrolatzeko irizpide higieniko eta sanitarioak ezartzen dituen uztailaren 4ko 865/2003 Errege Dekretua ere.
Araudi hori kontratuaren indarraldian aldatzen bada, kontratuan izan ditzakeen ondorioak aztertuko dituzte alderdiek.

Tenperaturak:

- Berokuntza
    - Berogailua duten lokaletako tenperatura indarrean dagoen araudiaren arabera mantenduko du esleipendunak. Era berean, eraikinen edo establezimenduen izaeraren eta erabileraren arabera.
- Ur bero sanitarioaren ekoizpena.
    - Esleipendunak ur bero sanitarioaren kontsumo-puntuetan tenperatura egokia mantenduko du.
    - Erabilera jakin batzuetarako, kontsigna-balio horrek aldaketak izan ditzake.

ADJUDIKAZIODUNAK BERE GAIN HARTZEN DITUEN PRESTAZIOAK.

Mantentze-prestazioak.

Esleipendunak honako prestazio hauek ziurtatzen ditu, edo bere erantzukizunpean segurtatzen ditu, instalazio tekniko guztien gainean:

- Instalazioak kudeatu eta zaintzea.
- Prebentziozko mantentze-lan sistematikoa, autokontrol-plana barne, agintari eskudunek ezarritakoaren arabera egingo dena.
- Prebentziozko mantentze kondizionala eta zuzentzailea.
- Arauzko kontroletarako laguntza teknikoa.
- Ordezko piezen biltegia kudeatzea eta hornitzea, Udalari eskatu ondoren.
- Produktu kontsumigarriak hornitzea, Udalari eskatu ondoren.
- Mantentze-dokumentuak eguneratzea.
- Lokal teknikoen garbiketa, ordenari dagokionez.
- Robota igerilekutik jaso edo jarri, hala dagokionean.
- Igerilekuen giro baldintzak, kloro-balioak eta pH-ak egiaztatzea, eta datua dagokion erregistroan jasotzea.

Kudeaketa eta zaintza.

Kudeaketan eta zaintzean sartzen dira instalazioen funtzionamendua kontrolatzea eta menderatzea ahalbidetzen duten zeregin guztiak.

Esleipendunak instalazioen orekari eutsi behar dio eta erregulazio eta kontrol sistemen kontrola ziurtatu behar du.

Esleipenduna arduraduna da, eta helburu horiek betetzeko erabili beharreko bitartekoak erabakitzen ditu, eta bereziki honako hauetaz arduratuko da:

- Instalazioak abiaraztea eta gelditzea.
- Beharrezko erregulazioak eta doikuntzak.
- Tresneriaren funtzionamendu-parametroen, saiakuntzen eta tresneriak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko maniobren jarraipena egitea.
- Instalazioen eta ekipoen zaintza orokorra.
- Txanda eta ikuskapen arruntak
- Parametroen neurriak (igerilekuak, giroa).

Mantentze prebentiboa, baldintzazkoa eta zuzentzailea.

Baldintzapeko mantentze prebentiboak, batez ere, instalazioak kudeatzetik eta zaintzetik eratorritako behaketetatik abiatuta esku hartzen du.

Esleipendunaren erantzukizuna eta ekimena dira oharren maiztasuna eta izaera, parametroak eta erabakitzeko irizpideak.

Adjudikaziodunak 48 ordu baino lehen egingo ditu mantentze-lan zuzentzaileak, eta neurri guztiak hartuko ditu eragiketa horiek ahalik eta eragin txikiena izan dezaten eraikinen ohiko funtzionamenduan.

Mantentze arrunterako beharrezkoak diren kontsumigarrien hornidura

Mantentze arrunteko prestazioak egiteko, Eskoriatzako Udalak hainbat kontsumigarri, hornidura mekaniko txikiak eta elektrikoak hornitzea ziurtatuko du, bereziki honako hauek:

- Olioak, koipeak, trapuak.
- Produktu desugertzaileak, desinkrustatzaileak eta deshidratatzaileak.
- Tefloia, zinta itsaskorra.
- Pilotuak, fusibleak, mota guztietako lanparak.
- Uhalak, iragazkiak.

Arauzko kontroletarako laguntza teknikoa.

Adjudikazioduna kiroldegira joango da kontrol-erakunde egiaztatuak, hala badagokio, egiten dituen arauzko bisitetan. Arauzko kontrol horietatik eratorritako kostuak Eskoriatzako Udalak ordainduko ditu.

Biltegia.

Ekipoen geldialdiak mugatzeko, esleipendunak kontsumigarrien, produktuen eta ordezko piezen biltegi bat eratu ahal izango du baimendutako lekuan. Hura hornitzeaz arduratuko da, Eskoriatzako Udalari eskatu ondoren.

Mantentze-dokumentuak.

Hala behar duten instalazioetan, esleipendunak mantentze-liburua egunean jarriko du eraikin bakoitzerako, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Oro har, adjudikaziodunak egunkari bat egin eta egunean jarriko du, eta bertan honako hauek idatziko ditu:

- Prebentziozko mantentze-lan sistematikoko bisitak.
- Esku-hartze prebentibo kondizional eta zuzentzaileak.
- Bere edo Zentroko Zuzendaritzaren ekimenez egindako aldaketak eta lanak.
- Egindako neurketa eta saiakuntzen emaitza.
- Eragiketa bakoitzerako, honako hauek aipatuko dira:
    - Data.
    - Eragiketa mota.
    - Ordezkatutako piezak.
    - Dagozkion oharrak.

Baldintza teknikoen agiri honen helburu diren instalazio guztien mantentze-lanen liburuak eta jarraipen-egunkariak kiroldegiko koordinatzailearen eskura egongo dira une oro horiek ikusterik nahiko balu.

Instalazioak eta ekipoak konpontzeko lankidetza.

Esleipendunak konpromisoa hartzen du udaleko edo udalak kontratatutako enpresetako langileekin lankidetzan aritzeko, baldintza teknikoen agiri honetan definitutako instalazioen eta ekipoen funtzionamendu-egoera ona bermatzeko beharrezkoak diren mantentze-lan handiko lanetan. Horregatik, bere gain hartzen du lankidetzan aritzeko eta zerbitzua emateko erantzukizuna, instalazioen egoera ona eta funtzionamendua zaintzeko.

Produktu kontsumigarrien eta ordezko piezen hornidura.

Eskoriatzako Udalak hornituko ditu ordezkatu beharreko kontsumigarriak.

Sartu gabeko prestazioak.

- Beren izaeragatik, ezaugarri apartekoagatik eta kostu handiagatik, instalazioen eta eraikinen urteko mantentze orokorraren esparrua gainditzen duten inbertsioak.
- Instalazioak araudiaren arabera jartzeko lanak, edo instalazioak edo eraikinak eraldatzeko eta berregituratzeko edo aldatzeko inbertsioak eta ekipamenduak.
- Kontratutik kanpoko prestazio horiek behar bezala onartutako aurrekontu batean definitutako prestazioak gauzatu ondoren fakturatuko dira.

3.10 ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK JARDUERA FISIKORAKO ORIENTAZIO-ZERBITZUAN.

Kontratuaren arduradunak gainbegiratuko du zerbitzua, eta behar diren jarraibideak emango ditu, eta, bere iritziz, modurik komenigarrienean erabaki ahal izango ditu kontratua betetzerakoan sor daitezkeen xehetasun-arazoak. Zerbitzuaren deskribapena:

- Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua zabaltzea eta sustatzea (foroak, material grafikoa, sare sozialak, mugikorreko aplikazio...).
- Ahalik eta pertsona gehien erakartzea zerbitzura.
- Erabiltzaileei aholkularitza eta orientazioa ematea kontrol- eta jarraipen-hitzorduen bidez, haien egoera fisikoa eta osasuna hobetzeko.
- Premia bakoitzari egokitutako jarduera-plana diseinatzea. Jarduerak proposatzea, zerbitzua planifikatzeko proposamena: diagnostikoa, diseinua, helburuak, programa, irismena, gauzatzea, etab.
- Datuak erregistratzea eta memoria bat egitea, GFAren eta Eusko Jaurlaritzako Mugimenten arabera. Horretarako, proiektu teknikoan zein plataforma digital erabiliko den aurkeztu behar da.
- Eskoriatzako Udalari informazioa ematea laguntzei eta dirulaguntzei buruz, bai eta aholkularitza ematea eta izapideak erraztea ere.
- Udalarekin etengabeko harremana izan beharko du, eta Eskoriatzako talde eragilearen koordinazio-bileretara joan.
- Zerbitzuaren funtzionamenduari eta helburuari eta ekar ditzakeen onura pertsonalei buruzko informazioa ematea.
- Banaka eta modu pertsonalizatuan aholkatzea, pertsona bakoitzaren premien, aukeren eta lehentasunen arabera.
- Erabiltzaileak orientatzea beren baldintza eta gustu pertsonalekin bat datorren jarduera fisiko osasungarria egitera, eta behar den jarraipena egitea.
- Jarduerak diseinatzea.
- Eskoriatzan jarduera fisikoa sustatzeko proiektuei laguntza teknikoa ematea.

4.- ZERBITZUETAKO LANGILEEN TITULAZIOA.

Enpresa esleipenduneko langile guztiek bete beharko dituzte baldintza agiri honetako 3.4 baldintzan ezarritako hizkuntz eskakizunak, eta baita ondoren adieraziko diren baldintzak ere:

SARRERA ZAINTZEKO ETA KONTROLATZEKO ZERBITZUA: Eskola-graduatu edo DBH titulua izatea, eta baita lehen sorospen ezagutzak ere; jendeari harrera egiteko antzeko lanetan esperientzia egiaztatzea, eta ofimatikako eta interneteko oinarrizko ezagutzak izatea.

SOROSPEN ZERBITZUA: Sorosleek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak igerilekuetarako onartutako sorospen-titulazioa eta -prestakuntza izan beharko dute, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen arabera.

UR JARDUERAK ETA IKASTAROAK: Zerbitzua ematen duten langileek erregistratuta egon beharko dute, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen arabera (Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Legea).

GIMNASIOKO JARDUERAK: Zerbitzua ematen duten langileek erregistratuta egon beharko dute, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen arabera (Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Legea).

OSASUN-FITNESS ZERBITZUA: Zerbitzua ematen duten langileek erregistratuta egon beharko dute, ekainaren 30eko 8/2022 Legearen arabera (Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Legea).

KIROL ARLOKO AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA KOORDINAZIO ZERBITZUA: Zerbitzua emango duten langileek, gutxienez, honako tituluren bat izan beharko dute:

- Kirol kudeaketan masterra (Graduondoa).
- CCAFYDeko graduatua edo baliokidea.

4. ESKORIATZAKO UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

Udalari dagokio, bere teknikarien bidez, kontratua ikuskatzea; eta kontratua behar bezala betetzeko jarraibideak eman ahal izango dizkio kontratistari kontratuaren baldintzetan oinarrituz eta kontuan izanik Alkateak izango dituela kontratua zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta hori garatzen duen araudian ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz, Administrazioari honako hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea. Eskoriatzako Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu kirol jardueretarako egokitutako lokalak. Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da. Eskoriatzako Udalari egotzitako arrazoiengatik –instalazioetan egin beharreko obrak edo beste edozein- zerbitzuak aldi baterako eten behar baldin badira, enpresa esleipendunak dagokion kalte-ordaina jasoko du Udaletik, negoziatu eta administrazio-prozedura formala egin ondoren. Gorabehera horien berri 7 eguneko aurrerapenarekin eman beharko da instalazioetan egin beharreko mantentze-lanengatik eta garbitasunagatik eteten bada zerbitzua (8tik 20 egunera urtean), eta 15 egunekoarekin, instalazioak hobetzeko obrak egin behar direla-eta zerbitzua aldi baterako eteteko beharra dagoenean.

Baldintza agiri honetako 3.4 atalean jasotako hizkuntz irizpideak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egin ahal izango du Eskoriatzako Udalak.

I.ERANSKINA

KIROL JARDUERAK

LEHORREKO JARDUERAK / ACTIVIDADES DE SECO


- PILATESA

- HIPOPILATESA
- ERORKETA PREBENTZIOA
- ATZEGI GIMNASIA
- ZUNBA
- GAZTE ZUNBA
- BODY TONOA
- K.O.I
- CIRCUIT TRAINING

URETAKO JARDUERAK / ACTIVIDADES DE AGUA

- AQUAGYMA
- HELDUEN IGERIKETA
- 3 URTEKOAK
- 4 URTEKOAK
- OLAGARROAK
- KARRAMARROAK
- IGELAK
- AMUARRAINAK
- IZURDEAK
- MARRAZOAK

II.ERANSKINA



III.ERANSKINA

ESKORIATZAKO KIROLDEGIKO SUBROGAZIO TAULA (2026)

Langilea	Aplikatu beharreko hitzarmena	Kontratu mota	Antzinatasuna	Kontratu amaiera	Kategoria	Jarduna	Gaur egungo hitzarmena	Urteko soldata gordina	Jarduna sorosle (%)	Jarduna begirale (%)	Oharrak
1.Langilea	2023ko Ojendetzako tituluetako publikoko kirol-instalazioen hitzarmen kolektiboa	200	01/10/2014	00/00/0000	Sorosle	95,91%	Convenio Colectivo Locales de Espectáculos y deportes de Guipuzcoa	22.721,30 €	86,82%	13,18%	
2.Langilea		289	01/10/2014	00/00/0000	Sorosle	94,86%		25.308,08 €	60,37%	39,63%	
3.Langilea		100	01/09/2019	00/00/0000	Begirale	100%		35.118,72 €	100,00%	0,00%	Ardura plusa 470,75€
4.Langilea		289	01/06/2021	00/00/0000	Sorosle	55%		13.543,36 €	99,31%	0,69%	
5.Langilea		289	26/07/2021	00/00/0000	Sorosle	85%		18.974,86 €	64,49%	35,51%	
6.Langilea		200	02/02/2023	00/00/0000	Begirale	16%		4.993,38 €	100,00%	0,00%	
7.Langilea		200	16/02/2023	00/00/0000	Sorosle	80,22%		21.681,38 €	45,54%	54,46%	
8.Langilea		200	23/04/2024	00/00/0000	Begiralea	5%		3.756,76 €	100%		
9.Langilea		100	16/10/2023	00/00/0000	Mantenimendu	100%		31.261,58 €			
10.Langilea		200	19/11/2024	00/00/0000	Sorosle	28,56%		7.419,58 €	97,11%	2,89%	
11.Langilea		200	06/11/2025	00/00/0000	Harreragilea	16,46%		3.257,50 €			
12.Langilea		289	15/01/2026	00/00/0000	Harreragilea	55,60%		11.482,52 €			